

NAFARROAKO ZENBAIT IBAR, HERRI ETA AUZOREN EUSKARAZKO IZENAK

Patxi Salaberri
Onomastika batzordeko kidea

Lan honetan Nafarroako zenbait ibar, herri, eta auzoren euskarazko izenez arduratuko gara, hots, euskara bizirik egon zen bitartean herri eta bailara horiek izan zuten euskal izena zein izan zen aztertuko dugu (kasu batean edo bestean herria oraindik euskalduna da). Izen asko, gehienak, euskal etorkikoak dira, baina honek ez du esan nahi euskaldunok beren horretan erabili ditugunik beti, euskaraz arruntak diren arau fonologikoak indarrean egon baitira hemen, bestetan bezala, bokal arteko sudurakariaren erortzea, kasu.

Ez dugu, inondik ere, “aurrehistoria”-ra itzuli nahi, baina bai euskaldunen artean ohizko izan diren izenak, aldaerak, berreskuratu. Aldaera hauek gutxitan azaltzen direla esan daiteke, hauen agertze-maiztasuna izen ofizialek dutenarekin erkatzen bada, baina guztiarekin ere behin baino gehiagotan edireten ditugu eskuarki, batez ere karpeta mordoxka miatu ditugun alderdietan.

Bakarren batzuek, “praktikotasuna” aintzat harturik galdutako izenok errekueratzeak zertarako balio duen galdegin dute berriki. Hauei beste galdera batez erantzun dakieke: zertarako balio du, Nafarroatik atera gabe, *Doneztebe*, *Hiriberri* (Arakilen, Aezkoan...), *Dorrau*, *Aurizberri*, *Luzaide*... bezalako izenak gordetzeak? Ez al da askoz azkarrago eta “praktikoago” erdaldunen artean korritzen duten *Santesteban*, *Villanueva*, *Torrano*, *Espinal* eta *Valcarlos* euskarazko ofizialtzat jotzea? Beste maila batean, zertarako konplikatu behar dugu bizia *-otz* bukaera gogaikarria euskarazko izenetan sartuz baldin bideseinaleak egiteko orduan errazago, merkeago, eta batez ere, onargarriago (erdaldunentzat, jakina, kasu gehienetan) (1) bada erdaraz arrunta den *-oz* uztea?

Gure irudiko erantzuna argia da: bai orain bizirik (nahiz hilzorian) dauden izenetan, bai dokumentazioan aurkitzen ditugunetan, euskaldu-

(1) Hemen ez gara Baztangoa bezalako kasuez ari.

nen artean arruntak diren edo izan diren izen edo aldaerak ofizialdu behar dira (*Zarrakaztelu, Nabaskoze, Gerendiain, Biotzari, Nardoze...*), beharrezko dituzten (izatekotan) ukituak egin ondoan (*laurta* → *Ihaurrieta, Antxoa, Antxua* → *Aintzioa...*). Honek ez du esan nahi, diogun berriro, aurrehistoriara jo behar denik; tokian tokiko euskara noiz(tsu) galdu zen hartu beharko dugu kontuan, eta honetan eta dugun informazioan oinarrituta erabakia hartu. Alderdi honetatik zorrotz jokatu beharra dago gure ustez, maiz lekukotasun bakarrarekin edo pare batekin egin beharko baitiogu aurre auziari. Erran nahi duguna zera da, lekukoak soberan ez ditugula izanen anitzetan.

Zalantzak bat baino gehiago izanen dira, bereziki informazio urria dugun kasuetan, baina "praktikotasun" gaizki ulertu horrek ezin izan dezake, gure ustetan, euskaldunek erabilirikako ohizko izen edo aldaerak bazter uzteko adinako indarrak.

Herri edo ibar baten izen euskalduna zein izan den jakiteko bide bat baino gehiago dago. Hauetako bat mugaldeko euskaldunei beheitiagoko herriei, harremanak izan dituzten herriei nola esaten dieten galdegitea da. Honela jakin ahal izan genuen, adibidez, *Carcastillo* eta *Tudela* euskaraz *Zarrakaztelu* eta *Tutera* (*Tutra* Zaraitzun, sinkopaz) direla, edo beste arlo batean *Dos Hermanas* ezagunari *Axitarte* (*Axiterte*, bokal-armoniaz) esan izan zaiola euskaraz harrarteaz hegoaldean behintzat. Bide hau, halarik ere, ez da nahi genukeen bezain emankorra, eta Nafarroako mendebaldean esaterako deus gutxitarako balio izan digu (2).

Herrien (batik bat) eta bailaren (neurri txikiagoz) izen euskaldunak ezagutu ahal izateko beste bide bat agiri zaharren miaketa da: hemen toponimo euskaldunetan, batez ere *bide* bigarren osagaitako dutenetan, baina ez bakarrik hauetan, edirenen dugu sarri askotan euskara aspaldi handian galdu zuten herri eta haranen izena, eta kasu batzuetan baita inoiz euskaldunak izan diren ez dakigunenak, goragoxeko herri euskaldun ohietako toponimiari esker.

Guk oraingoan Euskaltzaindiaren *Nafarroako herri-izendegia* lanean (3) bildutako datu eta emaitzetatik (erabakietatik) saihesten diren izenetako batzuk baizik ez ditugu ukituko (*Amillao* eta *Antzin* dira salbuespenak), paper zaharren arakatzea lan mantso, astun eta maiz gogai-karria izanik mordoxka bat besterik biltzeko gauza izan ez baikara. Beste asko eta asko hor daude, ikertzaileen esperoan, agiri egokia zeinek au-

(2) Dena den, gure ikerketak ere ez dira sekulan izan izan zitezkeen bezain sakon eta jarraituak alde batetik, eta bitxi bat edo beste jasogabeak ere ez gara, beste aldetik, hala nola *Goñerri* edo *Olloibar* (*Ollobar*) Bautista Etxarren jaun jatorraren ahotik, edo *Xabros* (*Sabrose*) "Jabrós" Jazinto Ramirez espartzar euskaldunagandik.

(3) Iruña, 1991.

keratuko zain. Hauen artean erdaraz *-ano* bukaera dutenak aipa daitezke (*Bakedano*, konparaziorako), aski berandu arte euskaldunak izan diren *Villamayor de Monjardín* edo *Villatuerta* bezalako herrien euskarazko kideak, edo franko hegoaldean egonik ere bidez herri euskaldun ohiekin loturikako Erriberako hainbat herriren izenak.

Guk bidutakoetan agiriko lekuko zehatzaz landa, gure ustez aldaera batuztat proposa daitekeena sartu dugu, izenburuan:

1. Adios:

NHI-n euskal izentzat *Adiotz* eman bazen ere, aipurik zaharrena **Adios**-en aide mintzo da, eta guk dokumentazioan forma hau aldi bakar batez bilduagatik, garbi samar ikusten da euskaraz ere **Adios** ibiltzen zela. Hau, dena den, ikerketa sakonago batek baiesten edo ezesten duen artean ezin da seguratu.

1.1. *Adiosbidea*:

–“otra pieça situada en el terº llamado adiosvidea... afrontada con el Camino”, Muruzabal, 1547 (4).

2. Ageza:

Izen hau bitan aurkitu dugu, Agezaren mugakideak diren Galipentzu eta Morionesen, hots, herriaz hego nahiz iparraldean. Grafia aski argia da, eta *Ayesa*-rekin lotzeko arazo fonetikorik bat ere ez dago (5).

2.1. *Agezabidea*:

–“otra pieça en agueçabidea... se atiene al Camino Real”, Galipentzu, 1641 (6).

–“otra pieza en agueça bidea”, Miriones, 1650 (7).

3. Alzutza:

Izendegian *Altuzza* hobetsi zen, baina han-hemenka ugariak dira izen hau *Alchucha*-itxurapean duten toponimoak. Cf., esaterako, Burlatako edo Uharteko *Altutzate*-ren lekukoak (8). Etimologia ere *Altutzza*-ren alde mintzo da, bukaeran itxuraz *-tza* ugaritasunezkoa baitugu. Dena den, Burlatako eta Uharteko toponimoetako *Alchucha* Eguesibarreko he-

(4) PRA-Gares, 2. k.

(5) Ikus Alfonso Irigoienen “Nafarroako *Aiesa* toponymoa euskaldunen artean *Ageza* forman ere erabili izan dela dirudi” artikuluxka, *DRPLV-III*, 161-162. orr.

(6) IEA, 387. kart., 12. zkia., 9. or.

(7) PRA-Oibar, 26. k.

(8) Jimeno Jurío, *Estudio toponímico de Burlada*, Burlatako udala, Iruñea, 1991, 47. or., eta *NTEM-I*, 70. or.

rri-izena den ez da erabat segurua, eta beste aldetik aipatu *Altzutzate* toponimoak *-sate* bukaera duten aldaera franko ditu. Hauek, agian, *ate*-ren adierakidea irudi duen *esate*-ren (*sate* bilakatua zenbaitetan, hala nola Zareko *Martisatea*-n) aldaerak baizik ez dira izango. Gainera, eta eskuarki, *-tze* ediren ohi dugu alderdi honetan, ez *-tza*.

4. Alu (Allo):

Allokoek beren herriak euskaraz zer-nolako izena zuen ikasten dutenean sobera ez direla poztuko ongi badakigu ere, uste dugu, lekukoak zeharo urriak izan arren, Oteitzan 1757an ediren dugun *Alu* dela Alloren euskarazko benetako izena. Fonetikoki ez dago arazorik: jatorria **Allu* moduko bat izan zitekeen, hots, alboko geminatua zuen forma bat. Hemendik erromantzeko alboko sabaikaria aterako zen, eta euskarazko *L* hasiera batean “gogorra” (cf. *castellu* > *castillo*, *gaztelu*). Erromantzeak, gainera, azken bokala irekiko zuen, ohizkoa den gisan, eta euskarak ebakera zaharrari eutsiko zion.

Dokumentaturik dagoen *Alo*-tik (9) ere abia gaitzke erdarazko eta euskarazko aldaerak erdiesteko. Kasu honetan erromantzeak alboko “gogorra” latineko alboko geminatuaren ondorengoekin identifika zezakeen, eta [j]-ren bidez eman, euskarak azken bokala hersten zuelarik. *Alo* zer den ez dakigu, baina Garesen, Alutik ez urruti, *Aloa* izeneko dermioa ediren dugu, 1548. urtean:

—“dos peonadas... En la pte llamada Aloa... afrontada... por la parte de vaxo con el Rio de arga y de la part de arriba con el Camino q ban de la dicha villa para El lugar de Artaçu” (10).

4.1. Alubidea:

—“mas otra pieza en el tterno de Alubidia... afrontada a... Camino q se ba ala Villa de Allo”, Oteitza, 1757 (11).

Egia esan, *Allobidea* ere aurkitu dugu, herri eta urte berean, baina beste aldetik, badakigu euskara galdu edo ahultzearekin euskal toponimoetan ere erdarazko aldaerek sarrera handia izan dutela (cf. *Zarebidea/Sadabidea* Leatxen):

—“Mas otra pieza en el tterno de Allobidea... afrontada a Camino que se ba a la v^a de Allo” (12).

(9) Ikus *NHI*, 216. or.

(10) *PRA-Gares*, 2. k.

(11) *PRA-Oteitza*, 2. k.

(12) *Id.*, 3. k.

5. Ameskoa:

Izen honek sortarazten dituen zalantzak hauek dira: Azkuek uste zuen moduan *ametz* zuhaitz-izenetik eratorria da, ala honekiko lotura ez dago inolaz ere argi? *Ametz*-ekin zer ikusia izan arren ezinezkoa da euskaldunek berek etorkiko ustezko [s] bizkarkaria apikari bilakatua?

Honako toponimo hauetan ediren dugu:

5.1. *Ameskoatea*:

–“Una pieza en amescoa atea... tente a Rio Caudal”, Ulibarri, 1698 (13).

–“Una pieza en amescoa atea”, Bitoria, 1695 (14).

5.2. *Ameskoabidea*:

–“otra pieza en amescoa bidea termino de viloria”, Bitoria, 1693 (15).

–“otra pieza... en Amescoa videa”, Bitoria, 1732 (16).

5.3. *Ameskoazargaña*:

–“...y desde alli alapared del Castillo de AmescoaCargaña y de alli a la Cueba de mecalorra”, Zudairi, 1665 (17).

5.4. *Ameskoazarlepoa*:

–“...mas arriba de la pieca de Urrayçola asta el arbol que tiene dos cruces y otras señas beniendo acia Amescoa Asta Amescoacarlepoa donde esta un encino...”, Zudairi, 1665 (18).

6. Amillao:

NHI-n erdarazko *Amillano*-ren euskal ordaintzat *Amillao* ematen bazen ere, ez zegoen erabakia oinarrizko frogatik gehiegi. Oraingoan hartutako erabaki hura baiesten duten bi lekuko dakartzagu. Jatorria, erakutsian dagoenez, *Amillano* ofiziala dugu.

6.1. *Amillaomendigaña*:

–“(otra pieza... en)... Amillau mendigaña”, Galdio, 1602 (19).

(13) PRA-Artabia, 9. k.

(14) Id., 16. k.

(15) Id., 7. k.

(16) Id., 23. k-bis.

(17) Id., 2. k.

(18) Id., 2. k.

(19) PRA-Lizarrak, 65. k., 18. zkia.

6.2. *Amillaoburua*:

—“(otra pieza... en)... Amillau burua”, Amillao, 1620 (20).

7. **Antzin**:

Izendegian *Antzin* eman zen erdarazko *Ancín*-en euskarazko aldaeratzat, baina dokumentazioan ez da ageri euskaldunek *Antzin* esaten zutelako frogarik bat ere. Guk herri-izen hau toponimo euskaldun batean aurkitu dugu, eta horregatik dakargu hona.

7.1. *Antzinbidea*:

Lekuko bakarra dugu, eta ez dakigu txistukaria igurzkaria ala afrikatua den:

—“una pieza... en Ancinbidea termino de Mendilibarry”, Mendilibarri, 1692 (21).

8. **Aramendia-a**:

Izendegiaren arabera *Aramendia* da *Aramendía* ofizialaren euskarazko izena. Guk ediren dugun toponimoan ikusten den gisan, bukaerako *-a* hori artikulua da. Hortaz, *Aramendia-a* proposatu behar genuke.

8.1. *Aramendira bidea*:

—“otra (pieza)... en aramendira bidea...”, Eultz, 1726 (22).

9. **Aranatz** (Aranaratxe):

Kasu honetan gauzak ez daude guk nahi genukeen bezain garbi, dokumentazioan *Aranaz*, *Aranach*, eta *Aranas* aurkitzen baitugu, azkeneko txistukaria beti herskari aitzinean dagoelarik (cf. hegoaldeko goinafarreraz arruntan diren “esta” ‘ez da’, “estirade” ‘ez dira’...). Beste aldetik, *Nafarroako herri-izendegia*-n bildu lekukoetan XIV. mende arte *Aranarach*, *Aranarass*, *Aranaratx*, eta *Aranarax* dugu (23), hots, amaiaeraren itxuraz [š] edo [č] duten aldaerak. Hauek, halarik ere, bitxi samarrak dira euskal fonetikaren aldetik, hitz bukaeran arruntenak afrikatu bizkarkariak, eta ez sabaikariak, direnez gero. Gainera, bildu ditugun lekukotasunetan soinu guztiak jatorrizko bukaerako [s] edo [c] batetik erator daitezke, -z grafema, jatorrizko soinutzat [š] edo [č] aitortuz gero, aski azalgaitz gertatuko litzatekeen bitartean. Nolanahi ere den, ez dago za-

(20) Id., 67. k., 464. zkia.

(21) PRA-Artabia, 6. k.

(22) Id., 23. k.

(23) 206. or.

lantzarik alderdiko euskaldunek *Arana(t)z* edo *Arana(t)x* ibiltzen zutela euskaraz mintzatzerakoan.

Ditugun lekukoak hauek dira:

9.1. *Aranas bidea*:

—“una (pieza) en el (termino) que llaman Aranas bidea... afrontada a... Camino que se ba a Aranarache”, Eulate, 1696 (24).

9.2. *Aranachbidegaina, Aranasbidegaina, Aranasbidagaina, Aranazbidegaina*:

—“una pieza... sita en el termino del dho lugar llamado aranazbidegaina... tente... a camino Rl que se ba al dho lugar de Aranarache”, Eulate, 1689 (25).

—“otra pieza en Aranachbidegaina”, Eulate, 1698 (26).

—“otra pieza en Aranasbidagaina”, Eulate, 1717 (27).

—“una pieza en... Aranasbidegaina”, Eulate, 1707 (28).

9.3. *Aranazko iturria*:

—“...y desde alli (Erenzauko hegia-tik)... fueron asi bien a la fuente llamada de aranazco yturria”, Eulate-Aranatz, muga-berrikusketa, 1686 (29).

9.4. *Aranasmuga, Aranasmuga*:

—“Primte. Una pieza en Aranaz Muga... tente a pieza de Maria de Andueza viuda de Lopez de Albizu V^a de Aranarache”, Eulate, 1691 (30).

—“...la una (pieza) en el ter^o q llaman aranasmuga”, Eulate, 1707 (31).

10. **Beire**:

Izendegian ohizko *N.i.e.c.c.*-ren ordez *Beire* sartu genuen, zuzen gure aburuz. Beirerekin muga egiten duen Uxuen ediren dugu toponimo hau.

(24) PRA-Artabia, 16. k.

(25) Id., 5. k.

(26) Id., 16. k.

(27) Id., 22. k.

(28) Id., 19. k.

(29) Id., 2. k.

(30) Id., 6. k.

(31) Id., 19. k.

10.1. *Beiremuga*:

–“ytten otra pieca en beyremuga u mojon de beyre”, Uxue, 1608 (32).

11. **Berro(t)za-a?**:

Azken *-a* horren galtzea elkarketan joateari zor zaiola dirudi, ez artikulua edo izateari, *Berrotza*-ko *-tza* atzizki multzokari izan bailiteke.

11.1. *Berrozbidea*:

–“otra pieza en berrozbidea tte a... zequia Conzegil”, Etaiu, 1724 (33).

12. **Estella**:

Hiri honen euskarazko izena Nafarroako (eta bestetako) giro euskaldun-euskaltzaleetan beti *Lizarra* izan dela esan dezakegu, neurri batez Euskaltzaindiak izen honi eman dion bultzada dela medio (34). Beste aldetik, Jimeno Jurío eta Ricardo Zierbideren lanei esker (35) badakigu orain auzo baten izena besterik ez dena antzina hiri osoarena izan zela. Guztiarekin ere, Lizarra ingurua euskalduna izan zen azken mendeetan bertako euskaldunek ibiltzen zuten izena *Estella* zela garbi dago, toponimia aintzat hartzen badugu. Mendiez iparraldeko euskaldunek ere (Arakil eta Ergoienekoek, adibidez) *Estella* eta *Estellerria* ibiltzen dute Lizarra eta Lizarra ingurua aditzera emateko, eta Iruñerrian ere *Estellerria* ibili izan da, *Estella*-z landara (36).

Beste aldetik, eta arestian esan bezala, *Lizarra*-k badu bere tokia euskal kulturari eta eguneroko bizitzan (egunkariak, irrati-telebistak, ikastolak, testuak...), eta ez dugu uste kontra egin behar zaionik, hartu duen indarra hartu duenez gero (cf. *Vitoria/Gasteiz*, adibidez).

12.1. *Estellabidea, Estellabideondoa, Estellara bidea*:

Eulate, Zudairi, Gollao eta Iguzkitza-Oteitzan ediren dugu *Estella* izena euskal toponimoen osagarri:

–“otra pieza en el termino de gollano y en el q llaman Estellabidea”, Gollao, 1697 (37).

(32) PRA-Oibar, 13. k.

(33) PRA-Artabia, 22. k.

(34) Ikus, adibidez, *Euskal Herriko udalen izendegia*, Bilbo, 1979, 27. or., edo berrikiago *NHI*, Iruñea, 1990, 160. or.

(35) “Informe sobre las denominaciones Lizarra/Estella y Atarrabia/Villava”, eta “En torno a las denominaciones de la ciudad de Estella”, *FLV*, 51, 1988.

(36) Ikus Jimeno Juriotren *TCPCO*, 267. or.

(37) PRA-Artabia, 17. k.

–“Una pieza... en la parte llamada Estellabideondoa... afrontada con Camino Real que ban a estella”, Eulate, 1665 (38).

–“otra pieza En el puerto llamado estellabideondoa”, Zudairi, 1696 (39).

–“otra pieza... en los terminos de Zudaire y en el llamado estellara bidea azia al lado del molino”, Zudairi, 1723.

–“ocho peonadas en el termino de estellabidia que afronta a camino que se ba a la Ciudad de Estella”, Oteitza, 1754 (40).

13. **Galbarra-a:**

Izendegian *Galbarra* ofizialaren euskarazko izentzat *Galbarra* agertzen da, baina itxuren arabera bukaerako *-a* hori artikulutzat jo beharra dago. Narkuen azaltzen da, bi toponimo ezberdinetan:

13.1. *Galbarbidetxipia:*

–“otra pieza en galbarbide chipia... tente a piezas de Maria alvarez Marichimi”, 1695 (41).

13.2. *Galbarko zaidua:*

–“otra (pieza) en galbarco zaldua teniente a piezas de franco (Francisco) alvarez y Mojon de Galbarra”, 1682 (42).

–“otra pieza en galbarco zaldua... tente a pieza de la dha Maria garcia y de Maria Mendaza viuda de Pedro Remiro Vecina de galbarra”, 1698 (43).

Badugu, halaz ere, azken *-a* hori artikulutzat jotzearen kontra mintzo den lekukotasuna:

–“otra pieza en galbarra bidea”, 1691 (44).

14. **Galdio** (“Galdiano”):

Galdio-ren jatorria, esan beharrik ez legoke, erdaraz ofiziala den *Galdeano* da, edo orobat dena, honen *Galdiano* [galɔdʝáno] aldaera herrikoia. *Galdiano*-tik bokal arteko sudurkaria eroritakoan **Galdiao* aterako zen, eta hemendik i-ren ondoko bokal-laburketaz, *Galdio*. Laburketa ho-

(38) Id., 2. k.

(39) Id., 16. k.

(40) PRA-Oteitza, 1. k.

(41) PRA-Artabia, 8. k.

(42) Id., 9. k.

(43) Id.

(44) Id., 6. k.

netan zer ikusia izanen zuen azentuaren tokialdatzeak, hots, *Gáldiao* > *Gáldio* gertatuko zen (ikus *Larragua* izena aztertzerakoan dioguna. Cf., gainera, *Zebrio* > *Zeberiano*, eta *Zipirio* > *Zip(i)riano*) (45).

14.1. *Galdiobidea*:

–“Yten otra (pieza)... en el termino de Galdiovidea”, Etxabarri, 1826 (46).

15. **Gollao**:

Izen honen iturburua, bistan denez, izen ofiziala den *Golláno* dugu. Hemendik, bokal arteko sudurkariaren ondorioz, **Gollao* aterako zen, eta hemendik, azkenik, *Gollau* ([gojáu] seguruenera). Cf. *Torráno* > *Dorráu* (baita > *Dórro* ere).

Dokumentazioan *Gollau* aurkitzen dugu, 1689ko *Gollai*- okerraz beste guztietan:

15.1. *Gollaudermaua*:

–“el dho franco lopez (hipoteca) una pieza... en gollau dermaua tte a piezas del palazio de gollano”, Bakedano, 1724 (47).

–“otra pieza... en el terº de gollau dermaua tte a piezas del dho Palazio (del lugar de Gollano)”, Bakedano, 1729 (48).

15.2. *Gollauko txaparduiburua*:

–“una pieza en gollaico chaparduyburua termino de gollano”, Gollao, 1689.

16. **Iribarri** (Ulibarri):

Euskal toponimoetan *Iribarri* eta *Ulibarri* azaltzen badira ere, esan beharra dago lehena askoz ere arruntagoa dela, hots, askoz ere gehiagotan agertzen dela. Bigarrena agertzea hizkuntza ofizialaren eraginari lepora dakioke, zenbaitetan, baita toponimo euskaldunetan ere, aldera hau (ofiziala) eta ez herrikoia, aurkitzen baitugu. Honako leku-izen eta herri hauetan topatu ditugu:

(45) AV, 47. sarrera.

(46) Allin eta Ameskoetako hip., 12. lib., 85. or.

(47) PRA-Artabia, 22. k.

(48) Id., 23. k-bis.

16.1. *Iribarribidagaina, Ulibarribidagaina, Iribarribideondoa* (Narkue):

- “otra pieza en yribarribidagayna”, 1692 (49).
- “otra pieza en Ulibarry bida gaina”, 1694 (50).
- “huna pieza en ulibarry bide gaina”, 1689 (51).
- “otras pieca en yribarri bideondoa Con su mangada”, 1644 (52).

16.2. *Iribarribidea, Iribarribidegaina* (Biloria):

- “una pieza en Yribarri videa”, 1678 (53).
- “otra pieza en Yribarribidegaina”, 1695 (54).

16.3. *Iribarriko muga* (Galbarra):

- “una pieza en yribarriko muga”, 1691 (55).

17. **Kaseda:**

Kasedabidea behin baino gehiagotan dokumentatzen da, baina *Santakaramuru* ez bezala, gaurregun ez dago bizirik. Izendegiko *N.t.e.c.c.*-ren ordezkari *Kaseda* proposatu behar genuke, euskaldunek *Kaseda* ibili izan dutela kontu argia baita, hurrengo toponimo honetan ikus daitekeen moduan:

17.1. *Kasedabidea:*

–“Ms otra pieza... en el terno de Caseda videa tente (‘teniente’) al camino q ban a Caseda”, Leatxe, 1723 (56).

18. **Lana:**

18.1. *Lanabidea, Lanara bidea:*

–“Una pieza cara de San Bartolome... tente a senda q se pasa a baldelana... Una pieza en lanabidea”, Abaigar, 1697 (57).

(49) Id., 6. k.

(50) Id., 7. k.

(51) Id., 5. k.

(52) Id., 4. k.

(53) Id., 16. k.

(54) Id., 16. k.

(55) Id., 16. k.

(56) IEA, 1765. kart., 9. zkia., 915. or.

(57) PRA-Artabia, 8. k.

—“otra pieza en lanara bidea”, Abaigar, 1698 (58).

18.2. *Lanarbidea*:

Toponimo honek beste toponimo batean oinarriturikako gentilizio batean du sorburu. Osagaiak, bistan denez, hauek dira: *Lanar* (< *Lana* + *-ar*) + *bidea*.

—“otra pieza en lanarbidea... pegante a pieza del dho P^o Sanz de galdiano y Camino Rl q los de baldelana ban a Estella”, Ollogoien, 1694 (59).

19. *Larraga*:

19.1. *Larragabidea*:

—“La hulltíma (muga) se puso Juntto a el camino de Larraga... la que tira drechamentte pr el camino subiendo hacia el lugar y el llamado Larragabidea”, Oteitza, 1752 (60).

—“otros vienes... sittos en los terminos de esta dha Villa goza y posee una pieza en el llamado Larraguidia... afrontada a Camino Real que se ba a la Villa de Larraga, terno de Ydoiberria”, Oteitza, 1761 (61).

20. *Larragua* (Larraona):

Toponimo honen jatorria dudarik gabe ofiziala den *Larraona* dugu. Hemendik, euskaraz arrunta den bokal arteko sudurkaria erori, eta **Larraona* emanen zuen lehenik, eta **Larrawa* gero. Beranduago, euskaraz eta gaztelaniaz arrunta den bezala, belare bat agertu zen [w]-ren aitzinean, *Larragua* sortuz (cf. *guartu* “ohartu”, *guatze* “ohatze”, *guain* [gwáin]...) (62). Garbi samar dago, beste aldetik, azken forma honek azentua bigarren silaban zeramala, alegia [laɾáɣwa] ebakitzen zela, bestela, izen honek erdarazko formak gaurregun duen azentuaketa (*Larraóna* esaten da) atxiki izan balu, *-o-* ez baitzatekeen *-w-* bilakatuko inodik inora. Hortaz, zera pentsatu beharra dago, gaurko *Larraóna* antzina (edo euskaldunen ahotan) *Larróna* zela, edo euskarara igarotzerakoan azentua ezkerretara mugitu zela, arrazoia garbi ageri ez dela (cf., dena den, *Torrano* > *Dorráu* > *Dórro*).

Bitan ediren dugun *Larragoa* aldaera forma ultzazuzendu bat besterik ez da gure iritziz, alegia, agirietan maiz baino maizago opatzen dugun *-oa/-ua-* txandakatzearen adibide bat gehiago baizik ez.

(58) Id., 9. k.

(59) Id., 7. k. Cf. Legariako *Senda de los Valdelaneses*. Id., 8. k., 1695.

(60) PRA-Oteitza, 1. k.

(61) Id., 3. k.

(62) Dena den, aitortu behar da ala euskaraz nola erdaraz soinu belare horren agertzea hitz hasieran gertatzen dela, eskuarki, ez hitz barruan.

20.1. *Larraguabidea, Larraguabidapea, Laraguabidegaina, Larraguabidea:*

—“otra pieca... en Larragoa Vide... afrontada... con... camino real que ban a Larraona”, Aranatz, 1687 (63).

—“otra pieza en Larraguabidea termino de Eulate... tente a pieza del palacio de S. Mn.º, Eulate, 1693 (64).

—“otra (pieza) en larraguabidegaina”, Eulate, 1705 (65).

—“otra pieza... en larraguabidapea... con... Camino Rl que ban a la-raona”, Aranatz, 1709 (66).

—“otra pieza... en larraguarabidea”, Aranatz, 1711 (67), Eulate, 1700 (68).

21. **Mendabia:**

Izendegian *N.t.e.e.c.* agertu arren, garbi dago, jarraian ikusten denez, euskaldunok *Mendabia* erabili izan dugula.

21.1. *Mendabiabidea:*

—“otra pieza en mendabia Vide terº de Arroniz... que Afruenta con camino q ban a mendabia”, Arronitz, 1602 (69).

22. **Mugairi:**

Izendegian Euskaltzaindiak *Mugairi* eman zuen ofiziala zen *Mugai-re*-ren euskarazko kideztat, bukaerako bokalaren irekitzea, beherago ikusiko dugun *Zudairi/Zudaire*-rena bezala, erdararen eraginari zor zitzaio-lakoan edo. Orain dakartzagun lekukotasunak Andrés Iñigo batzordekideak bilduak dira, eta bertan ikus daitekeen moduan, *Mugairi* aldaera da bakarra edo nagusi XIX. mende arte:

—“...en las casas de mugayry que es en la valle de vertiz...”, 1544 (70).

—“...en mugayri...”, 1569 (71).

(63) PRA-Artabia, 4. k.

(64) Id., 7. k.

(65) Id., 19. k.

(66) Id., 20. k.

(67) Id., 20. k.

(68) Id., 16. k.

(69) PRA-Arronitz, 4. k.

(70) PRA-Donztebe, 10. k.

(71) Id., 67. k.

—“Joanes de mugayri vecino de oronoz...”, 1580 (72).

—“...una borda con su mançanal sita en mugairi...”, 1644 (73).

—“...en el lugar de oyeregui cavo la puente de Mugayria...”, 1646 (74).

—“...otra heredad en el termino de mugairi...”, 1683 (75).

—“...mugairi...”, 1769 (76).

—“...en la benta nombrada mugaide jurisdiccion de el lugar de oronoz”, 1783 (77).

—“...benta de mugairu (sic) propia de los terminos del lugar de oronoz...”, 1812 (78).

—“...en la benta de Mugairi, jurisdicción del lugar de oronoz...”, 1814, 167. k., 22. zkia.

23. **Murgieta** (“Murgindueta”, Arakil):

Izendegian aldaera honen lekuko biziak bildu baziren ere, forma osoa hobetsi zen, oker ez bagaude bien artean dagoen alde handiagatik eta *Murgieta* eta antzeko aldaeren ustezko berritasunagatik. *Murgieta* orde, ez da batere berria, segituan ikusteko aukera izanen dugunez, eta gure ustez *Otsagabia-Otsagi*, *Olatzagutia-Olazti* eta abarren taldean sartu behar genuke, aldaera osoa eta laburtua ontzat joaz.

23.1. *Murgietabidea*:

—“yten otra p^a en murgieta vide... afrontada... con el Camino Real...”, Ihabar, 1565 (79).

24. **Olatz** (Egues):

Izendegian *Olatz Txipia-a* agertu arren, argi dago izen hau beste zerbaiti dagokiola, eta erdarazko *Olatz*-en euskarazko kideak *Olatz* izan behar duela.

(72) Id., 52. k.

(73) Id., 65. k.

(74) Id., 4. k.

(75) Id., 78. k.

(76) Id., 78. k.

(77) Id., 132. k., 7. zkia.

(78) Id., 207. k.

(79) PRA-Arakil-Hirib., 2. k.

24.1. *Olazbidepea*:

—“otra (pieza)... en Olazbidepea linta con... Camino de olaz”, Labio, 1858 (80).

25. **Olexua**:

Lekuko bakarra dugu, eta bertan azaltzen den -x- grafemak [š] soinua ezezik, [x] ere adieraz lezake, baina edozein moduz, izendegian bil-tzen diren testimonio zaharrek garbi uzten duté oraingo [x] lehenagoko [š]-tik atera dela (cf. euskaraz [š]/erdaraz [x] duten hainbat herri-izen eta toponimo). Dena den, euskaraz dugun lekuko bakarrak -ua- du, eta ba-liteke hau izatea euskaldunek erabili zutena.

25.1. *Olexuabidea*:

—“una pieça... en el termino detayo llamado olexua bidea”, Etaiu, 1600 (81).

26. **Oleta** (Olleta, Orba):

Erdaraz *Olleta* deitzen duguna euskaraz tradizionalki *Oleta* izan da euskaldunen ahotan, Lergako *Oletabidea* toponimoak frogatzen duen moduan. Etimologia ura bezain gardena da: *ola* “etxola, burniola” + **-eta**. Beste aldetik, erdarazko [l]/euskarazko [l] erlazioa oso ongi dokumentatua dago, jatorrizko alboko “gogorra” latineko alboko geminatuen ondorengoekin identifikatu delarik erromantzez (cf. *Zabala/Zaballa, Ollabarre/Olaberri...*) euskaraz ohizkoa den bezala -l- dugun bitartean.

26.1. *Oletabidea*:

—“otra pieza en Oletavidea... afta (“afronta”)... a camino que ban á Olleta”, Lerga, 1798 (82).

27. **San Martin** (San Martin Unx):

Izendegian *San Martin Unx* eman bazen ere erdarazko *San Martin de Unx*-en euskarazko baliokidetako, toponimia euskaldunean *San Martin* besterik ez dugu opatzen, alderdiko jendearentzat, bistan denez, *San Martin* bakarra *San Martin de Unx* izanik ez baitzen *Unx* eransteko beharrik sentitzen.

27.1. *Sanmartinbidea (San Martin Unxeko bidea?)*:

—“Yt. otra p^a en temjo llamado Sanmartinbidea”, Amatriain, 1538 (83).

(80) Agoizko hipot., 4. lib., 366. or.

(81) PRA-Arronitz, 2. k.

(82) PRA-Oibar, 84. k.

(83) Id., 2. k-bis.

27.2. *Sanmartinmuga:*

—“...del camino del molino azia chucho comprendiendo San Martin muga”, Uxue, 1729 (84).

28. **Santakara:**28.1. *Santakaramuru:*

Izendegian *Santakara* Uxueko *Santakaramuru* toponimoan ageri zela eman zen aditzera, baina hala ere, arrazoi sozio-politikoengatik edo, *N.t.e.e.c.* jarri zen erdarazko izenaren parean, hau egia ez bada ere, obra horretan berorretan garbi ikus daitekeen gisan. *Santakaramuru* oraindik bizirik dago, eta osasun onez.

29. **Saragueta:**

Hemen Koldo Artolaren “Hegoaldeko goi-nafarreraren azentua delata (hurbiltze-saiakera)” (85) izeneko lanean biltzen den Arrietako *Sauta* (*Sautára, Sautará* adlatiboan, *Sautakó* leku-genitiboan) aldaera aipatu nahi nuke. Izendegian *Zaragueta* sartu genuen, oinarri urriz nere irudiko, eta hori aldatu behar genukeela uste dut, bertako euskaldunek (Arrieta, Saragueta bezala Artzibarren dago) *Sauta* ibiltzen baitzuten, ez **Zauta*, eta horrek azpian *Saragueta* dugula esan nahi du, ez *Zaragueta*. Bilakaera hau izan zitekeen: *Saragueta Sarauta Saauta Sauta*.

30. **Sarea** (Zubietako auzoa da) (86):

Izendegian *Sarecoa* ofizialaren euskarazko adierakidetako *Sarekota* hautatu zenagatik, badirudi, dokumentazio eskasa ikusita, izen honek ez duela inolako oinarririk. Auzoan bada *Sareko borda* deritzan baserria, eta hau dela medio zenbaitek *Sarekoa* ibiltzen dute auzoa izendatzeko. Guztiarekin ere, bertakoentzat auzoaren izenik arruntenak **Sarea** da, mende honetako katastro guztietan aurkitzen dugun berbera, alegia, eta gure irudiko hauxe da hobetsi behar genukeena, *Sarekota* baztertuta.

31. **Tebas:**

Izendegian izen ofizialarekin bat datorren *Tiebas* hautetsi zen he-riaren euskarazko baliakidetzat, baina euskal toponimoetan bi aldiz azaltzen den *Tiebas*-ez gainera *Tebas* ere badugu, diptongaziorik gabe. Azken aldaera hau, gainera, behin baino gehiagotan agertzen da XIII. mendean, *Tiebas*-en aldamenean (87).

(84) PRA-San Martin Unx, 33. k.

(85) *FLV*, 60, 1992, 187-227. orr.

(86) Proposamen hau, eta ematen diren lekukotasunak, Andrés Iñigorenak dira.

(87) Ikus *NHI*, 186-187. orr.

T(i)bas-en etorkia zein den ez dakigu, eta ez dirudi axola handiegi-koa denik darabilgun auzia argitzeko, baina adibidez euskal jatorri garbikotzat bide den *Zarikiegi*-n ere edireten ditugu, maiz aski gainera, dip-tongodun eta diptongorik gabeko aldaerak (ikus *Zarikiegi* sarrera), eta gure ustez hemen ere antzeko zenbaiten aitzinean egon gaitezke, hots, euskarazko izena *Tebas* litzateke, nahiz izen “ofiziala”-ren eraginez *Tiebas* ere ageri den, beste toki batzuetan bezalaxe. *Tebasbidea* eta *Tiebasbidea* Jimeno Juriok bildu ditu, Beriaingo dokumentazioan (88).

32. Urdotz (Urdànoz):

Urdotz erdarazko *Urdànoz*-en euskarazko kidetzat agertzen da dokumentazioan. Bi aldaera hauen iturburua 1243 eta 1248an azaltzen den *Urdanotz* (NHI, 161.or.) dugu. Bilakaera, berriz, hau izan bide da: *Urda-notz* > *Urdànoz* (erdaraz), *Urdanotz* > **Urdaotz* > *Urdotz* (euskaraz).

32.1. Urdozbidea, Urdozbidaburua:

— “ona pa en odiaga tenjent... con hera de anso arcaya... otra pa en el camino que ban a Urdanoz clamado ordoz (sic) bidea”, Munarritz, 1521, PRA-Jaitz, 5.k.

— “-...e la (pieça) de munarriz es en la pt (part) clamada Urdoz bidaburua tenjent de la una part con pa (de) Johanjco el biejo con pa de mayzterra e con el dicho camo.”, Munarritz, 1521, PRA-Jaitz, 5.k.

33. Urkidi:

Izendegian Zubietako auzo den *Aurquidi* ofizialaren euskarazko baliakidetzat *Aurkidi* eman bazen ere, badirudi, dugun dokumentazioa ikusita, *Urkidi* egokiagoa litzatekeela. Diogun, bidenabar, azken honen etimologia askoz garbiago ageri dela. Hona hemen ditugun *Urkidi*-ren lekukoak (91); *Urquidibarrena*, *Urquidissuso*, *Uquidiyusso*, 1551 (92), **Urkuidi**, 1554, 1569, 1593, 1605, 1677 (93), 1730 (94), 1807, 1808 (95), eta 1824ean (96).

(88) Ikus *TCPCG*, 109. orr.

(91) Proposamen hau eta aipatzen diren lekukotasunak Andrés Iñigo batzordekidearenak dira.

(92) PRA-Donetztebe, 16. k.

(93) Id., 18., 15., 30., 29., eta 58. karpetak, hurrenez hurren.

(94) Iturengo udal artxibategia (IUA).

(95) PRA-Donetztebe, 165. k., 61. eta 14. zkiak.

(96) Hipotekak, 126. karpeta.

Aurkidi lehen aldiz 1663an azaltzen da (*Aurquidi berecoa*) (97), **Ur-kidi** baino mende bat pasatua beranduago; gero 1687, 1698 (98), eta 1753an (99) edireten dugu berriz huts-hutsik (*Aurquidi*), eta 1796an hutsik nahiz *garaia* posposizioak lagunduta (100). Aurrerago mende hone-tako katastroetan ageri da berriz, 1927tik aitzina, eta gaurregun ere ho-rra (*Aurkidi*) erran ohi zaio.

34. **Zarikegi** (Zarikiegi, Ziur zendea):

Izendegian *Zarikiegi* eman genuen izen ofiziala den *Zariquiegui*-ren euskarazko adierakidetzat, nahiz lan horretan berorretan *Zarikai* aldaera herrikoia ere biltzen zen. Dokumentazioan ikus daitekeen moduan, *Za-rikegi* zein *Zarikiegi* azaltzen da XII. mendetik XVII.-era, eta toponimia euskaldunean, Jimeno Jurioen *TCPCC*, 148-149. orr., lanean ikus daite-keenez, arruntak dira *Zarikegi* nahiz *Zarikiegi* osagaitako duten leku-ize-nak: *Zariquiegui ardancetara bideam*, *Çariqueguico ardança*, *Zariquiegui bide yturquetan*, *Zariquiegui perdona bidea*, *Çariquiegui çelaya*, *Zariquiegui-bidea*, *Çariqueguibidea*, *Zariquiegui bidea*, *Zariquiegui bide gaña*, *Za-riquiegui bide senda*, *Zariquiegui bidea*, *San Salvatore parean*, *Zariquiegui bide zarra*, *Zariquiegui bide zaba*, *Zariquiegui erreca*.

Gure irudiz, egungo *Zarikai* herrikoia (Urritzolako Bautista Etxarre-nek euskaraz ibiltzen du, izendegian ikusten ahal den gisan) 1837an do-kumentatzen den *Zariquey bide zarra* bezalako toponimoetan dugun *Za-rikei*-tik atera da, *-ei* > *-ai* irekitzea aski berria delarik (XIX. mendeko kontua, seguruenera), itxura guztien arabera. Bokal arteko belare igurz-kariaren galtzea arrunta da gaurregun Nafarroako hainbat tokitako euskaraz, eta arrunta da, orobat, ditugun testu zaharretako anitzetan, eta *-ei* > *-ai* irekitzea baino zaharragoa dela dirudi. 1683ko *Çarique faceria goi-tian* eta *Zarique bide zarra atracen dena Zarikei*-tik, eta ez *Zarikegi* edo *Zariquiegi*-tik, abiatuta azaldu beharko ditugu.

Hortaz, eta laburtuz, diogun gure irudiz *Zarikegi* izan dela herriaren izen euskalduna, *Zarikiegi* ere, izen ofizialaren eraginez seguru aski, agertu arren, eta *Zarikai* aldaera herrikoi oraindik bizi eta euskaraz era-bilia hortixek atera dela (*Zarikegi*-tik), *Zarikei* bitarteko zela.

35. **Zolia** (Zolina):

Izendegian *Zolina* ofizialaren euskarazko kidetako *Zolina* bera eman zen, bestelako lekukotasunik ez genuelako. Orain, ordea, badakigu euskaraz *Zolia* erran ohi zela.

(97) PRA-Donztebe, 56. k.

(98) Id., 61. eta 84. karpetak.

(99) IUA.

(100) PRA-Donztebe, 160. k., 102. zkia.

35.1. *Zoliabidea*:

—“una pieza... en la endrecera de Zoliabidea afta al camino que dirige a Zolina”, Badoztain, 1852 (101).

36. *Zudairi*:

Izen honen lekuko bakar dudazkoa dugu. Izan ere, hemen, beste hainbatetan bezala, ez dago *-i* ala *-e* den bereizterik, nahiz hauxe zen guri gehien interesatzen zitzaiguna.

36.1. *Zudairidermaua*:

“una pieza en Zudairidermaua (Zudairedermaua?) y en errotarabi-dea”, S. Martin, 1710 (102).

(101) Agoizko hipote., 4. lib., 582. or.

(102) PRA-Artabia, 20. k. Burundan *Dermaua* soro-multzoa da, hau da lantzen den lurra, *Basoa*-ri kontrajartzen zaiona. Dena dela, bailara honetan *dermaua*-rekin batera batzuetan *dermio* ere badugu gaurregun, nahiz dokumentazioan *dermau* azaltzen den: *Dermau* Altsasun, *Azpiko dermioa* (*Azpico dermauba* gehienbat agirietan), *Dermiotxiki* (*Dermauchipia* 1714ean) Olatzagutian, baina *Dermiotxikia*, *Dermiotxikibazterra*... eta beste Urdiainen. Ikus *Nafarroako toponimia eta mapagintza* (NTEM), IX. eta X. aleak, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1992, 40, 69-70, 72 eta 90-91. orr.

Ameskoa eta Lanako dokumentazioan beti *dermau* dugu, antza denez ondoko herria-rekin muga egiten duen alderdia izendatzeko. Batzuetan, halaz ere, mintzagai dugun hitz honen adiera Burundan duena bera izan liteke: cf. Ekalako *Dermauaren erdia* eta *Dermaubaren gohena* izenak (PRA-Artabia, 22. k., 1722, eta id., 3. k., 1685). Honen jatorria zuberera zaharrean edireten dugun *termañu*-rena (*FHV*, 303. or.) bera izan liteke, **termañu*, alegia, Lana eta Ameskoan desbustidura gertatu delarik lehenik, eta sudurkariaren galera gero (cf. erdarazko *perraña*, *perrana*/euskarazko *perra*, *perrea*, *ferra* beste toki batzuetan, Ergoienean kasu), hasierako herskari ahoskabearen ahostuntzeaz gainera.